



*Ibai ondoko  
pasealekuko  
lanen hasiera*

*/5. orrialdea*

*Pediatriako  
kontsultaren  
berrikuntza*

*/2. orrialdea*

*Kirol  
instalazioen  
prozesu parte-  
hartzailea*

*/3. orrialdea*

*Parte-hartzea  
Ehiza, Arrantza  
eta Ingurumen  
Azokan*

*/5. orrialdea*

*Intzarri  
Dantza Taldea,  
euskal kultura  
helaraziz*

*/6. orrialdea*

## Editoriala

### *Muskizen eta muskiztarren alde ari gara lanean*

Udaren ondoren, eta pilak ondo kargatuta ditugula, gure udalerrria hobetzeko hartutako konpromisoekin jarraituko dugu lanean.

Abuztuan amaituta ikusi ahal izan ditugu aurretik abian jarritako mugikortasunaren alorreko hainbat proiektu, hala nola, ikastetxeetako lanak, segurtasun barandak Meatzarin eta San Joanen eta ibai ondoan pasealeku berria sortzeko lanen hasiera. Barbadun ibaiaren bazterrean oinezkoentzako egingo den bideari

“*Abuztuan gauzatuta ikusi ahal izan ditugu Muskizen alde abian jarritako hainbat mugikortasun proiektu*


esker, aisiarako eta mendi ibiliak egiteko gune bat sortuko da Jan Joan eta Burdinolaren artean. Muskizko herritarrek eta bertara etortzen diren bisitari gero eta ugariagoek datorren udan paraje natural honetaz gozatzeko aukera izan dezaten pentsatuta dago proiektu hau.

Orain, ikasturte berriarekin batera eta ilusio berriekin, iritsi da ekainean azaldu genituen proiektu guztiak abian jartzeko garaia: San Juliango garbitokia, Gibako argiak, frontoiko aldagelak...

Legegintzaldiaren bi urte eskas igaro dira, eta, denon ahaleginari eta adostasunari esker, aurrerantz doa Muskiz. Gauza asko egin ditugu, eta beste asko gelditzen dira egiteko. Lerro hauen bitartez, eskerrak eman nahi dizkiot eguneroko jardunean alboan dudan taldeari, jartzen duen gogoagatik, ahaleginagatik, eta gure udalerriarekin eta herritarrekin erakutsi duen zintotasunagatik.

Besarkada handi bat.

**Borja Liaño Abarrategi**  
Muskizko alkatea



## *Pediatriako kontsulta berritzea Osasun Zentroan*

Muskizko udalak hitzarmen bat izenpetu du Osakidetzarekin, udalerriko osasun zentroan pediatriako kontsultak berritzeko eta eguneratzeko.

## *Akordioa Gallarreta Lantegiekin*

Udalak akordio bat izenpetu du udalerrian kokatuta dagoen Talleres Gallarreta Lantegiak S.L. enpresarekin, hura izan dadin Muskizko hiri-altzarien mantentze lanak, garbiketa eta konponketak egitearen arduraduna, zehazki, bankuei, mahaiei, barandei, kaleko argiei eta iragarki-taulei dagozkienak. Lana hilero ordainduko da, 4.500 euro hileko, dagokion hilean egindako lanen zerrenda aurkeztu ondoren.

Bankuak garbitzea eta lixatzea eta, ondoren, kanpoko pintura metalikoarekin azken ukitua ematea, torlojuak aldatzea

eta, horien ordean, herdoilgaitzak jartzea, eta eranskailuak kentzea; horiek izango dira kontratatutako lanak.

Bankuak zer egoeratan dauden kontuan hartuta, hilero 15 banku konpondu beharko dira gutxienez, eta hiruhileko batez beste 18 konpondu beharko dira. Gainera, hamabostean behin udalaren iragarki taula guztiak garbituko ditu aipatutako enpresak, eta epez kanpo dauden kartelak eta iragarkiak kenduko ditu, bai eta Udalez kanpokoan ere; halaber, grapak, zeloak, eta abar ere kenduko ditu.

## *XXXV. Nekazaritza Azoka Muskizen*

XXXV. Nekazaritza Azoka arrakastaz amaitu da aurreko berriro ere. 70 stand baino gehiago izan dira guztira, eta, horietan, denetarik topatu dute parte-hartzaileek: gazta, fruta, barazkiak, ogia, ezti, loreak, txokolata, euskal pastela, elikagai ekologikoak, saskiak, nekazaritzarako tresnak. Abereei dagokienez, 100 animalia baino gehiago izan ziren ikusgai (behiak, ardiak eta ahuntzak). Horrez gainera, Gatikako Txoñe txakolindegia irabazi zuen Bizkaiko Txakolina jatorri-deituraren Urrezko dominaren lehenengo saria, eta zaldi lehiaketan, berriz, 800 eurotik gora banatu ziren, 35 zaldiren artean.

Berrikuntza gisa, heziera ikustaldi bat egin zen, eta bertako behi haragiz egin-

dako 1.000 hamburgesa baino gehiago saldu ziren. Horrez gainera, azoka bat jarri zen frontoian, 10 standekin, Muskizko dendak sustatzeko asmoz, eta bertara hurbildutakoek herriko dendatan saltzen diren produktuak ikusi eta eros- teko aukera izan zuten.





# Kirol instalazioetarako parte-hartze prozesua

**M**uskizko Udalak kirol instalazioetan hobekuntzak egiteko 57 ekarpen jaso ditu herritarren aldetik, ekainaren 15etik 29ra bitartean udalerrian egin zen parte-hartze prozesuan zehar eta herritarren partaidetzarako eskainitako baliabideen bitartez. Jasotako 57 ekarpen horietatik, 25 proposamenek lotura zuzena zuten proiektuarekin; gainerako 32 ekarpenak, aldiz, etorkizunean hartuko dira kontuan, udalerriko kirol zentroaren instalazioak eta zerbitzuak hobetzeko proposamenak baitira.

Udalak, ahal duen neurrian, proiektuarekin lotura duten 25 proposamenak erantsiko dizkio proiektuari, eta honako hauek egingo ditu, besteak beste: haur jolasak jarriko dira igerilekuan, txikiak erabiltzeko; hamakak jarriko dira, edonork erabili ahal izateko, eta vending makinak edo antzekoak jarriko dira, udako igerilekuetara joaten direnei zerbitzua emateko.

Beste alde batetik, Muskizko atletismo klubaren aholkuei jarraituz, atletismoko pista errespetatuko da, ofizial egiten duten ezaugarriei eutsiz, eta behar beste neurri hartuko dira espazioaren erabilerrak bateragarri egiteko.

Parte-hartze prozesu horien bitartez, Muskizko Udalak herritarren benetako premiak ezagutu nahi izan ditu, zuzenez udalerriaren premiak ezagutzen dituztenen eskaeretan oinarritutako irtenbideak eskaintzeko, eta, era horretara, muskiztarren protagonismo aktiboa sustatzeko.

## Lanen hasiera

Aire zabaleko igerilekuak egiteko lanak 2017. urtearen amaieran hasia aurreikusitako Muskizko Udalak, 2018ko udako denboraldian zabalduko asmoz eta bertako igerilekuek gozatzeko aukera izan dezaten urte sasoi horretarako.

## Hartu beharreko neurriak

*Igerilekuan haur jolasak jartzea*

*Vending makinak edo antzekoak jartzea*

*Edonork erabiltzeko hamakak jartzea jolas eremuan*

*Ez dira atletismoko pistaren ezaugarriak aldatuko*



## Segurtasun handiagoa adinekoen etxebizitzetan

Muskizko Udalak, herrian bizi diren adinekoen begira, suteen prebentziorako zerbitzua ematen jarraituko du; urte batzuk dira abian jarri zela zerbitzua, eta oso emaitza positiboak lortu dira. Neurri horren bitartez -besteak beste, etxebizitzetan kea detektatzeko tresnak jarri ziren eta etxebizitzak husteko krokis bat egin zen-, adinekoen segurtasuna hobetu nahi da, eta erraztasunak eman nahi zaizkie beren inguru hurbilean autonomiaz jarduteko.

Udalak, guztira 11.000 euroko aurrekontuarekin, sute arriskuak minimizatu nahi ditu arrisku talde baten baitan, hau da, bakarrik edo lagundurik bizi diren adineko pertsonen taldean. Horretarako, kea detektatzeko tresnak instalatzeaz gainera, beste hainbat ekintza egingo dira, hala nola, etxebizitzaren ingurune fisikoarekin zerikusia duten alderdien azterketa, instalazioen egoera txarra dela-eta (besteak beste, gasa, galdarak, aireztapena, berogailuak...) suteak sortzeko arriskuan dauden guneak identifikatzea. Era berean, adineko pertsonen narriadura kognitiboaren, zentzumenei dagokionaren eta mugikortasunaren narriaduraren azterketa egingo da, eta, era berean, pertsona horien premia sozialak aztertuko dira.

Gaur egun, Muskizko 131 etxebizitzatan ateratzen diote etekina neurri horri, eta, horrez gainera, 22 detektagailu osagarri jarri dira.



## **Markesina Marcelo Gangoiti egoitzan**

Muskizko Udalak, eskaera ugariren ondoren eta hainbat kontsulta egin eta gero Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak, Mugikortasuna eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Sailarekin, Marcelo Gangoiti egoitzan autobuseko markesina berri bat jartzea lortu du.



## **San Joanen barandak jartzea**

Udalak barandak jarri ditu San Joan auzoan, bertan bizi diren herritarrek eta inguru horretan saltokiak dituztenek aspalditik eskatu bezala. Baranda horien bitartez, hobetu egiten dira mugikortasun arazoak dituzten pertsonen bertara iristeko aukerak, eta maldaren ondoriozko erorikoen arriskuak saihestea bilatzen da. Lan horien kostua 18.101,60 eurokoa izan da, guztira.



## **Garbiketa BBK aparkalekuan**

Udalak BBK ondoko aparkalekuan garbiketa egin du uda ondoren, eta, horrez gainera, beste hainbat esku-hartze egin dira inguru hori egoitzeko. Lan horien kostua horren ardura duen enpresarekin hitzartutako garbiketa kontratuaren barruan dago sartuta.

## **Udalak hitzarmen bat izenpetu du Abanto Musika Eskolarekin**

Muskizko Udalak, bertako herritarrek erraztasunak izan ditzaten musikako ikastaroetan sartzeko, hitzarmen bat izenpetu du Abanto Zierbenako Udal Musika Eskolarekin, Abanto Musika Eskolarekin, Muskizko herritarrek aukera izan dezaten eskolan sartzeko. Interesa duten muskiztarrek musika ikastaroak egin ahalko dituzte auzoko herrian errol-datuta daudenen prezio berean, eta Muskizko Udalak hartuko du bere gain aldeari dagokion kostua.

Muskizko Udalak egindako ekarpena ezingo da 4.000 eurotik gorakoa izan; beraz, guztizko kopuru horretatik gorakoa bada, Muskizko ikasleei kobratuko zaie alde. Interesa duten muskiztarrek Udalera joan beharko dute, eta, bertan, errolda-ziurtagiri bat emango zaie; ziurtagiri hori Abanto Musika Eskolan aurkeztu beharko dute izena emateko unean. Abanto Zierbena Musika Eskolak 4 urtetik gorako haurrentzako eskola programak ditu, baina baita helduentzako ikastaroak ere, musika hizkuntza, instrumentuak eta talde instrumentalen alorrekoak.



## **Maintentze-lanak hiru ikastetxetan**

Udalbatzak 35.148,08 euro inbertitu ditu guztira, udalerriko hiru ikastetxeetan mantentze-lanak egiteko. Egin beharreko lan gehienak hondatutako erradiadoreak eta komunak aldatzea, gelak pintatzea, ihesak konpontzea eta atek atontzea izan dira; edonola ere, diru partida horren barruan sartu dira eraikinen kanpoaldean egindako lanak ere.

Ekitaldi honetan, Muskizko Udaleko Gobernu Batzordeak Ikastolan, BHIIn eta Catarrana eskolan egin ditu konponketa lanak, eta udako oporraldian egin dira. Lan horien artean, aipagarrienak iturgintzaren alorreko lanak izan dira.



## Parte-hartzea Ehiza, Arrantza eta Ingurumen Azokan

**M**uskizko Udalaren Ingurumen Sailak XI. Ehiza, Arrantza eta Ingurumen Azokan parte hartu zuen bigarren urtez. Irailaren amaieran izan zen azoka, eta 50 erakusketa-postu baino gehiago jarri ziren guztira. Aurtengo edizioan, aipagarria da Reverse Vending makina bat jarri zela, eta Muskizko Udalbatza aztertzen ari da makina hori udalerrian jartzeko aukera.

Altzatu eta Birziklatu enpresak jarri zuen makina herrian, eta, erakustaldi praktikoen bitartez, eko-tiketak banatu zitzaizkien erabiltzaileei, opariekin trukatzeko: 1.000 LED bonbilla, iturrietan jartzeko 1.500 zurrusta-hausteko eta 1.000 elastiko, txapel eta mantal baino gehiago banatu ziren Ingurumen Sailak jarritako karpan. Horrez gainera, doako

hainbat argitalpen eskaini ziren, ingurumeneko gaiei buruzko materialarekin, bai eta harrentzako tailerrak ere. Legealdi honetako helburuetako bat Azokan parte hartzea da, herritarren artean iraunkortasunaren eta ingurumenaren alorreko jardunbide egokiak sustatzeko eta horri buruz kontzientziatzeko asmoz.

Aipagarria da Azoka honetan hainbat automobil elektriko jarri zirela, Mercedes-Benz Aguinaga enpresaren eskutik, herritarrek horiekin ibil zitezten, eta proba zitzaten. Bizikleta elektrikoak ere eraman zituzten, Decathlon enpresak antolatutako zirkuitu batean ibiltzeko. Horrez gainera, hainbat stand jarri ziren, Muskizen egindako produktuekin, besteak beste, kremak, eskulanak, nekazaritzako produktuak, marmeladak, frutak...



## Ibai ondoko pasealekuko lanen hasiera

Muskizko ibai ondoko pasealeku berria sortzeko lanak abuztuan hasi ziren. Barbadun ibaiaren bazterrean egingo diren lanei esker, aisiarako eta mendi-ibiliak egiteko 4 kilometroko gune bat sortuko da, San Joan eta El Pobaleko Burdinolaren artean. Tarte horrekin amaituko da oinezkoiei 12 kilometroko ibilbidea egiteko aukera emango dien bidea. Kobaron eta El Pobal lotuko ditu bideak, eta, zehazki, Pobeña, La Arena hondartza, San Julian, Muskizko erdigunea, Santelices eta Nesillatik igarotzen da. 2018ko udan muskiztarrek eta bisitariek paraje natural honetaz gozatzeko aukera izan dezaten pentsatu da proiektua.

## Musika eta umorea izango dira protagonista Meatzari Aretoaren denboraldian

Azaroaren 4tik (larunbata) aurrera, 2017ko Umorea eta Antzerki denboraldia antolatuko da Meatzari Aretoan. Tanatorium ekoizpena izango da denboraldiari hasiera emango diona, bizitzari eta heriotzari buruzko pertsona bakarreko ikuskizunarekin. Azaroaren 11n, 19:30etik aurrera, Antonio Ozoresek zuzendu duen eta Emma Ozores eta Vicente Renovell protagonista dituen "El último que apague la luz" lan dibertigarria ikusi ahal izango da. Eta, azaroaren 18an, umorezko ikuskizun batekin emango zaio amaiera denboraldiari: "The Primitals", tribu disfuntzional samarra, eta nahiko orekatua.



## Muskiz kolorez beteko da, horma-irudiei esker

Muskizko Udalak lankidetzaren hitzarmena izenpetu du Euskal Herriko Unibertsitate Publikoarekin (EHU-UPV), hurrengo lau urteetarako. Hitzarmen horren bitartez, Pintura Masterra egiten ari diren ikasleek Muskizen egingo dituzte beren praktika akademikoak. Ikasleak beren irudimenaz eta arteaz baliatuko dira, beraien lanen bitartez herriaren historia gogora ekartzeko eta udalerriko kaleak kolorez betetzeko. EHUko ikasleak La Rigada auzoan egiten ari dira lehenengo horma-irudia, eta inguru horretako historia gogora ekartzea da helburu nagusia. Udalak beste horma-irudi batzuk egitea ere aurreikusitako du, baina oraindik zehaztu gabe dago zer auzo edo lekutan egingo diren.



## Elkarrizketa

### **Intzarri Dantza Taldea, bi hamarkada baino gehiago Muskizen “euskal kultura eta dantza” zabaltzen**



**“Oso konplexua da taldeari eustea, haurrek nahiago dituzte beste era bateko jarduerak**

Intzarri Dantza Taldeak bizitza osoa darama haurrak eta helduak euskal kulturaren eta dantzaren alorrean prestatzen. 20 urtetik gorako ibilbidean, Muskizko eta inguruko herrietako herritar asko igaro dira taldetik. Gainbehera garai batean, lurraldearen kultura sustatzea eta horri eustea izan da beti taldearen helburua.

**G/ 20 urtetik gorako ibilbidea, eta herrietako asko Aurori Bartolomeren eskutik. Nola sortu zen Intzarri Dantza Taldea?**

*E/ Orain dela urte asko sortu zen taldea. Ni neu izan nintzen aitzindarietako bat. Kultura Sailaren ekimen baten bitartez, dantza eskolak ematera etorri ziren, eta, handik bi urtera, taldea sortzea erabaki zen. Hasieran jende asko elkartu ginen, 100 lagun inguru, baina orain asko aldatu da egoera; “urritasun urteak” direla esan liteke.*

**G/ Zenbat lagunek osatzen duzue Intzarri Dantza Taldea gaur egun?**

*E/ Orain oso gutxi gaude, 20 lagun inguru. Dena dela, itxaropena dugu ikasturte berri honetan jende gehiagok emango duela izena, eskolaz kanpoko jarduera gisa ari baikara dantza eskaintzen ikastetxeetan. Horrez gainera, bada denbora bat Muskizko Emakume Elkartearekin lankidetzan ari garela; eskolak ematen dizkiegu, eta haiek gurekin parte hartzen dute udalerriko ekitaldietan. 8 emakume daude orain.*

**G/ Asteazkenetan egiten dituzte entseguak?**

*E/ Asteleheneretan helduek izaten dituzte entseguak, eta asteazkenetan, txikienek. Aipagarria da inguruko herrietako haurrak ere etortzen direla Muskizera ikastera, esaterako, Galdamesetik edo Cas-trotik.*

**G/ Festetan, Olentzeroren jaitsieran... ikusi ohi zaituztegu. Egutegian egun bereziak dira horiek zuentzat.**

*E/ Jakina, konpromisoa dugu Muskizekin. Beti parte hartu ohi dugu herriko jaietan edo Gabonetako jaitsieretan. Aurten, txupinazoa bota genuen, hemen gaudela erreibindikatu nahi genuelako eta ezin diogulako utzi euskal kultura eta dantza helduei zein haurrei helarazteari.*

**G/ Zaila al da gaur egun dantza talde bati eustea?**

*E/ Gaur egun oso zaila da; lehen esan bezala, oso garai konplexua da taldeari eusteko, izan ere, haurrek nahiago dituzte beste era bateko jarduerak. Askotan, gurasoek ematen diete izena, haurrak txikiak direnean, baina adin jakin batetik aurrera utzi, eta beste gauza batzuk egiten dituzte. Egoera aldatu dadin ari gara lanean, baina zaila da.*



### **Muskiztarrek 70 argazkirekin parte hartu dute udalerrira sare sozialetan sustatzeko kanpainan**

Udan, Muskizko argazkien bilduma bat egiteko helburuarekin, herritarren parte-hartze proiektu berri bat sustatu zuen Muskizko Udalak. Herritarrek herriko guneko eta paraje naturalen argazkiak partekatu behar zituzten sare sozialen bitartez, #GureMuskiz hashtaga erabiliz. Uda amaituta, 70 argazki inguru bildu dira, herriko hainbat parajetakoak; horien bitartez, Muskizko

edertasun historikoaren ikuspegi pertsonal eta berezia adierazi nahi izan dute parte-hartzaileek. 2017ko Musika eta Umore jardunaldietarako abonamendu bana jasoko duten lehiaketa aleatorioaren bi irudi irabazleak –Facebook bidezkoa bat eta Twitter bidezkoa bestea– Juan Guerrero eta Aitor Bárcenasenak izan dira.